

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuei buruzko ondorio eta gomendioak. Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluak gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko IV. txostenean sartu ditu

2004. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko IV. Txostena egitea SIIS Dokumentazio eta Azterlan Zentroari esleitu zitzaion, eta horrek egindako testuaren gainean aritu da lanean Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua. Horretarako (eta beste zenbait gauzatarako) Azterlan eta Proposamen Batzordea sortu zen Kontseiluan, eta eztabaidatu eta ados jarri ondoren, Kontseiluaren Osoko Bilkuran ondorioen eta gomendioen proposamen bat aurkeztu ahal izan zuten; proposamen horretatik abiatuta, Kontseiluak jarraian datorren testua onartu zuen. Txosten honetan 2001. urteko datuak ageri dira, baina Kontseiluko kideek ahalegina egin dute informazio eguneratuagoa txertatzeko hausnarketan, eta nolana ere, guztien artean aztertzeko eta baloratzeko ahalegina egin dute, honako ondorio eta gomendio hauek egin ahal izateko; 2004ko azaroaren 24an Bilbon izan zen Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran ondorio eta gomendio horiek onartu ziren.

1.

Urteen buruan, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrerapauso handiak egin dira askotariko gizarte-behar ugari betetzeko. Hala ere, gizarte-zerbitzuen gaitan herritarren eskubide subjektiboak argi eta garbi onartuko dituen lege-esparru bat falta da, gure ongizate-sistemaren oinarri izaki, gizarte-zerbitzuen gure sistemak behar duen sendotasuna lor dezan.

Hori dela eta, gizarte-zerbitzuen inguruko eskubide subjektiboen edukia argi eta garbi zehaztuko duen legedia garatzeari ekitea gomendatzen du Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak. Herritar guztiek zein gizarte-zerbitzuetarako eskubidea duten zehatz-mehatz eta zalantzarik gabe jakin dezaten, katalogo, kartera edo antzeko tresnaren batean jaso beharko dela uste dugu.

2.

Indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuen Legean gizarte-zerbitzu sistema bat aipatzen da, eta egia esateko, legean bertan eta bai aurreragoko garapenean ere, sistema hori eraikitzeko lagungarri izan diren elementuak aurkitu ditugu. Alabaina, gure gizarte-zerbitzuek badute gabeziarik: egitura, ordena, antolaketa eta homogeneotasuna. Horrek guztiak sistemaren hainbat puntutan gainzama dakar, alde batetik, eta bestetik, gizarte-zerbitzuen sistema beste sistemekin koordinatzea oztopatzen du, hala nola, osasun-sistemarekin, gizarte-zerbitzuen Legean propio aipatzen dena. Horretan eragina izan dute, besteak beste, honako hauek: gizarte-errealitate berriak agertzeak, gizarte-zerbitzuen hazkunde azkarrak, edo gizarte-ongizateko beste sistemetan izandako aldaketek eragindako erronkek.

Horregatik, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako gomendio hau ematen du: egitura homogeneoagoa eta hobeto antolatua lortu ahal izateko beharrezkoa den lege-esparruari eta plangintzari ekitea, gure Erkidegoko lurraldeetan dauden kudeaketa-motak eta garapen mailak aintzat hartuta. Diseinu hobetu horretan, gizarte-zerbitzuen barne-koordinazioa, eta beste babeseko edo gizarte-ongizateko sistemekin antolatzea hobekien ahalbidetuko duten mekanismoak, instantziak, egiturak eta baliabideak zehaztu beharko dira.

3.

Gizarte-zerbitzuen inguruko gure legedian gizarte esku-hartze pertsonalatuaren alde egiten duen arreta-eredua planteatzen da, artatutako herritarren beharrei eta itxaropenei erantzuteko ahalegina egingo duen kasuen kudeaketan oinarrituta, arretaren jarraitutasunaren ikuspuntutik begiratuta. Prebentzioari garrantzi handia ematen zaio legedian, eta komunitatearekiko gizartekintzak lehentasuna du, ahal den orotan, herritarra bere erreferentziako familia eta gizarte ingurunetik urruntzea saihestuz. Legedi horren arabera, baliabide, zerbitzu eta aukera normalizatuenak eta ahal den gutxien murriztai-

leenak eskaini behar dira beti. Hala ere, sistemak hartu duen administrazio eta eskumen egitura ez da beti lagungarri izaten, printzipio horien arabera jarduteko.

Horren guztiaren aurrean, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako aholku hau ematen du: herritarren osoko eta etengabeko arreta indartzeko dauden edo izan daitezkeen proposamenen egokitasunari buruz eztabaidatzea eta bideragarritasuna aztertzea, eta oro har, gure legedian proposatutako arreta-ereduaren ardatz diren printzipioetara egokitzea gure gizarte-zerbitzuak. Horren ondorioz, ezinbestean, Erkidegoko, lurraldeko, eskualdeko eta herriko lanaren ordenazio koherentea eta koordinatua berrantolatu beharko da, jarduera-eremu gero eta konplexuagoa eta profesionalizatuagoa izanik, gizartekintzaren jarduera-eremuak eskatzen duen diziplinartekotasun eta espezializazio mailaren, eta herritarrentzako etengabeko erreferentzia-puntu izango den oinarritzko arretaren arteko oreka lortuko duten sistemak bilatuz.

4.

Antza denez, EAEko gizarte-zerbitzuetan lan egiten dutenek abantaila baino desabantaila gehiago ikusten dizkiote gizarte-zerbitzuetako eta gizarteratze-zerbitzuetako erantzukizunak sailen artean banatzeari.

Hori ikusirik, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren gomendioa da aurrerantzean berriz azter dadila gizarte-zerbitzuetako eta gizarteratze-zerbitzuetako erantzukizunak sailen artean banatzea.

5.

Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen arteko eta eskualdeen arteko aldeak murrizten asko aurreratu dugu, pertsona bakoitzeko gastuari eta gizarte-zerbitzuen estaldurari dagokienez, baina aldeak handiegiak dira, oraindik ere. Bestalde, eskura ditugun datuen arabera, gure gizarte-zerbitzuek ez dute gure inguruko herrialdeetako erreferentzia alde batera utzi behar, herrialde horien eruedetara gerturatu nahi badugu, bederen, pertsona bakoitzeko gastuaren eta gizarte-estalduraren eremuan.

Hori guztia aintzat hartuta, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako hau gomendatzen du: parte hartzen duten administrazio publikoek gure Erkidegoko gizarte-

zerbitzuen eremuan berdintasunaren aldeko urratsak ematen jarraitzea, pertsonako gastuan eta beharren estalduran lurraldeen arteko aldeak murrizteko, eta inguruko herrialde aurreratuenekiko alde orokorrak ere murrizteko.

6.

Zalantza izpirik gabe, gizartekintzako gobernu kanpoko erakundeek bide luzea eta arrakastatsua jorratu dute EAEn, eta gizarte-behar askori aurre egiteko aitzindariak eta bultzatzaileak izan dira, eta izaten jarraitzen dute, askotan. Hirugarren sektoreko erakunde horiek hainbat eginkizun betetzen dituzte, eta euren izaerari eutsiz gero, gertutasun, malgutasun, arintasun, sentsibilizazio eta parte-hartze arloetan balio erantsiak gehitzen dituzte, nahiz eta balio horiek oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuetako sistema publiko osoaren berezkozat ere har daitezkeen. Dena dela, irabazi-asmorik gabeko sektorearen indarra ez da nahikoa erronka guztiei aurre egiteko, eta jasotzen dituen babesa eta baldintzak ez dira izan beharko luketen bezain argiak eta egonkorrak, kasu guztietan.

Hori ikusita, hauxe da Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren gomendioa: eskumen-eremu guztietan, hirugarren sektoreari babesa emateko politika orokorrak sortzen eta hobetzen jarraitzea, gizarte arduratsuan eta parte-hartzailean duen funtsezko aktibizazioa hori onartuta. Gure ustez, botere publikoek eta, oro har, gizarteak tresna berriak sortu behar dituzte, gorago aipatu ditugun balio ukiezin horiek barne hartzen dituen onura publikoko hirugarren sektore horri modu egonkorrean laguntzeko.

7.

Zerbitzuen kudeaketari dagokionez, hainbat aukera onartzen dituen gizarte-zerbitzuen sistema eskaintzen dute gure legeek, erantzukizun publikoaren printzipioa alde batera utzi gabe. Zenbait kasutan, ordea, egoera jakinak suertatzen dira, zeinetan gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko sektorearen, irabazi-asmoa duen sektorearen, eta sektore publikoaren egitekoa eta nortasuna ez diren ongi bereizten. Esate baterako, batzuetan, zenbait zerbitzutan diru-laguntzen sistemari eusten zaio, bestelako finantzazio-sistemaren bat egokiagoa litzatekeenean. Zenbait egoeratan, irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dakite zein erakunderengana jo behar duten, eta eraginkortasun-eza eta bikoiztasunak sortzen dira. Zenbaitetan, berez hirugarren sektorekoak diren formula juridikoen gezurrezko erabilera egiten da, edo adibidez, euren langileen aurrean erakundeek duten

baliozko solaskide-papera lausotu egiten da. Azken batean, gizarte-zerbitzuak kudeatzeko eta eragileak erlazionatzeko formulen legezkontasuna alde batera utzi gabe, badira zuzendu beharreko hainbat akats alor horretan.

Hori dela eta, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren aholkua honako hau da: eskumen-eremu guztietan zerbitzuak kudeatzeko eta finantzatzeko formulei buruzko politika esplizituak eta egonkorak sortzea, beharrezkoa den maniobragarritasuna eta dinamismoa alde batera utzi gabe; horrela, argi eta garbi, eta segurtasun, malgutasun eta zabaltasun nahikoarekin, zehaztuko da zein zerbitzu izango diren zuzeneko kudeaketa publikokoak, zerbitzuak kontratatzeke politika zein izango den (dagozkion klausula sozial eta guzti, gizarte-zerbitzuen eremuan, kontratazio publikoan berezkoak baitira), eta hitzartutako ekintzarekin loturiko politika zein izango den. Horren ondorio izango da, besteak beste, akreditazio eta homologazio mekanismoak garatzea eta hobetzea, baita kontrol eta ebaluazio mekanismoak ere.

8.

Gure gizarte-zerbitzuetan, lanaren eta soldataren inguruko baldintzak askotarikoak izaten dira, eta hitzartutako kudeaketa pribatuko edo pribatu sozialeko gizarte-zerbitzuetan baldintzak txarragoak izan ohi dira, izan ere, horiei dagozkien jarduerak eta eremuak ez baitaude behar bezala arautuak kasu askotan. Gizarte-zerbitzuen berezko garapenak eta egonkortasunak egoera horiek konpondu beharra dakar.

Horregatik, eta lan-harremanen inguruko aldeek eta esparruek duten autonomiari zor zaion begirunearekin, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako hau proposatzen du: baldintza txarrenetan dauden gizarte-zerbitzuetako langileen lan eta soldata baldintzak hobetzera bideratutako ekintza koordinatua eta irmoa, eta oro har, negoziazio kolektiboari, eta sektoreko lan-harremanak arautzeari bultzada bat ematea.

9.

Gizarte-zerbitzuen inguruko politika publikoen eremuan, parte-hartze sozialeko dinamika ez da nahikoa sendoa eta eraginkorra, eta beraz, ez dira behar bezain ongi entzunarazten gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen ahotsa, eta, oro har, gizarte zibilaren

iritziak edo proposamenak, adierazteko eta antolatzekeo dituzten guneeetan, betiere, demokratikoki era

tutako botere publikoen zilegitasun ukaezinaren beharrezko osagarri gisa. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak berak badaki zeintzuk diren bere benetako mugak, organo parte-hartzaile gisa.

Horren guztiaren aurrean, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak hauxe aholkatzen du: Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuetan herritarrek parte hartzeko sistemak berriz proposatzea. Parte-hartzea handitzea, administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko elkarriketa eta konplizitatea hobetzea lortu behar da, guztiona den espazio publikoaren etengabeko eraikuntzan. Era berean, parte-hartzeko organoetan proposamen gehiago egitea eta gizarte-protagonismo handiagoa ere lortu beharko liriateke.

10.

Orain arte egindako ahaleginak eta aurrerapausoak gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek ez dute oraindik informazio-sistema orokorrik, sistemak behar bezala funtziona dezan beharrezkoa den ezagutza eta informazioa modu eraginkorrean lortzea, behar bezala prozesatzea eta azkar zabaltzea ahalbidetuko duena. Eta hori oztopo bihurtzen da sistemak aurre egin beharreko erronka handiekin, hala nola, mendekotasunak edo bazterketa, bi adibide garrantzitsu jartzearen.

Hori guztia aintzat hartuta, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako hau gomendatzen du: EAEko gizarte-zerbitzuen sistema osoarentzako informazio-sistema bat eraikitzekeo ahaleginei eustea, datuak babesteko indarreko legedia aplikatzen jarraituta, egungo informazioaren eta komunikazioaren arloko teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatzeko, eta gizarte-zerbitzuen inguruko diagnostia, plangintza, ebaluazioa, ikerketa, garapena eta berrikuntza erraztekeo.

11.

EAEko gizarte-zerbitzuetan 2.200 zentro baino gehiago, 16.000 egoitza-plaza baino gehiago, eguneko zentroetan 3.300 plaza baino gehiago, 19.000 langile baino gehiago,

eta urteko gastu publikoan 520 milioi euro baino gehiago dituzte, baina herritarrek ez dute hori guztia behar bezala ezagutzen, ezta aintzat hartzen ere.

Hortaz, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ustez, komunikazio-plan bat landu, burutu eta ebaluatu behar da; ados jarrita erabakitako izendapenetan eta planteamenduetan oinarrituta, plan horrek gure gizarte-zerbitzuen erakunde-irudia sendotu eta hobetu egingo du, eta batik bat, oinarrizko gizarte-zerbitzuena, sistemaren ataria eta erreferentzia baitira herritar ororentzat.

12.

Gutxieneko bermearen arloan asko aurreratu dugu Euskal Autonomia Erkidegoan, baina hala ere, EAEko gizarte-zerbitzuen sistemak administratutako prestazio ekonomikoen inguruan tirabira eta arazo ugari dago oraindik ere.

Horregatik, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak honako hau aholkatzen du: gizarte-zerbitzuetatik ematen diren prestazio ekonomikoak argitzea eta berrantolatzea, beste hainbat gairen inguruan esan dugun moduan, gutxieneko errenta-sistemaren eraginkortasuna eta zuzentasuna hobetzen jarraitze aldera, betiere unean uneko errealitateari egokituta, eta administrazio guztiak koordinatuta, sortzen diren beharrak eta eskaerak estaliko direla bermatzeko.

...

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak kide guztien parte-hartzearekin eta adostasunarekin egin du txosten hau, eta batik bat, ondorioak eta gomendioak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sarearen baitan duen egitekoaren jakitun aurkeztu du txostena, betiere beste eragileen edo instantzien iritzia eta egin dituzten edo egin ditzaketen ekarpenak entzuteko irekia egonik, eta jakinik gizarte-zerbitzuei buruzko txostenak urtero egiteko konpromisoa betetzen ari dela, konpromiso hori betetzen jarraitzeko gogoz.